

ELKARTEAREN ESTATUTUAK

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA

1. artikulua.- 2004ko otsailaren 23an AS/B/11035/2004 erregistro-zenbakiarekin inskribatutako Bilboko EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA SUSTATZEKO "IBILALDIA" ELKARTEAREN estatutu hauek aldatu egin dira, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13 artikuluetan azaltzen denarekin bat etorritz.

Elkartea arau hauen mende egongo da: aipatutako elkarteei buruzko legeak, estatutu hauek (legearen aurkakoak ez badira), elkartearen gobernu-organismoek behar bezala hartutako erabakiak (legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak onesten dituen erregelamenduzko xedapenak (azken horiek osagarriak izango dira).

ELKARTEAREN HELBURUAK

2. artikulua- Hona elkarte honen **HELBURUA**:
Euskara eta euskal kultura sustatzeko jarduerak eragitea, burutzea, laguntzea eta finantzatzea.

Helburu horiek lortzeko, JARDUERA HAUEK egingo dira, ezarritako legezko betekizunak bete ondoren:

- Arreta-gune bat ezartzea, euskara sustatzeko jarduerak norabideratu eta koordinatzeko.
- Ikastolei aldikako dohaintzak edo diru-laguntzak egilestea.
- Lehiaketak eta Biltzarrak antolatzea, euskararen erabilpena sustatzeko.
- Aldizkariak eta argitalpenak argitaratzea, euskararen erabilpena sustatzeko.
- Bekak edo laguntzak eskaintzea, euskararen erabilpena sustatzeko.



J0D0Z-T1Q6Q-D47S bilagailua erabiliz dokumentu honen autokiak egiaztatzea le-
goitza elektronikoa honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

este documento puede ser contrastada mediante el localizador

J0D0Z-T1Q6Q-D47S en la sede electronica <http://euskadi.eus/localizador>

Aurreko paragrafoan azaldutako jarduerak gorabehera, elkarteak, bere xedeak betetzeko, honako hauek egin ahalko ditu:

- baliabideak biltzeko era guztietako jarduera ekonomikoak gauzatu.
- Era guztietako ondasunak edozein tituluren bidez eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta kontratuak egin.
- Nolanahiko ekintzak burutu, betiere legeekin eta Estatutuekin bat etortzekotan.

HELBIDE SOZIALA

3. artikulua.- Hona elkartearen helbide nagusia: Aoiz Plaza, 1. 48015 Bilbo. Bizkaia.

Elkarteak beste lokal batzuk ere eduki ditzake Autonomia Erkidegoan, Batzar Orokorrak hala erabakitzen badu.

LURRALDE EREMUA

4. artikulua.- Hemen, lurralde-eremu honetan, garatuko ditu bere funtzioak elkarteak: Bizkaian.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

5. artikulua.- Elkarteira iraunkorra izateko eratu da, eta IV. kapituluan esaten den bezala ezohiko batzar orokorrean hartutako erabaki bidez baino ezingo da desegin, edo legeetan aurreikusitako arrazoiren batengatik.

Elkartearen funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoa izango da, eta pluraltasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarritzko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten itunak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.



BIGARREN KAPITULUA

AGINTE- ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

6. artikulua.- Elkartearen agintea eta administrazioa kide anitzeko organo hauen esku egongo da:

- * Bazkideen Batzar Orokorra izango da organo gorena.
- * Zuzendaritza Batzordea izango da kide anitzeko zuzendaritza-organoko iraunkorra.

BATZAR OROKORRA

7. artikulua.- Batzar Orokorra bazkide guztiek osatzen dute, eta organo honen bidez adierazten dira bazkideen nahiak.

Hona Batzar Orokorraren ahalmenak:

- a) Elkartearen jarduera-plan orokorra onartzea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d) Estatutuak aldatzea.
- e) Elkarrekin desegitea.
- f) Lehendakaria, idazkaria, diruzaina eta kide anitzeko aginte-organoko gainontzeko kideak, baldin badaude, izendatzea eta kargutik kentzea; eta horiek guztiak ikuskatu eta kontrolatzea.
- g) Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietatik ateratzea.
- h) Ondasun higiezinak erabili edo besterentzeko erabakiak hartzea.
- i) Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar zaiela erabakitzea, hala komerzio bada.
- j) Kuota arruntak eta bereziak ezartzea. Ahalmen hau, hala ere, Batzar Orokorrak aginte-organuari eskuordetu diezaioke horretarako bereziki hartutako erabakiaren bidez.
- k) Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
- l) Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.



8. artikulua.- Batzar Orokorrak ohiko bilkurak eta ez-ohiko bilkurak egingo ditu.

9. artikulua.- Batzar Orokorrak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura, 7. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan zehaztutako erabakiak hartze aldera.

10. artikulua.- Batzar Orokorra Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duenean bilduko da ezohiko bilkuran, bere ekimenez edota bazkideen % 25ek eskatu duelako. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira baina, nolanahi ere, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko bilduko da:

- a) Estatutuak aldatzeko.
- b) Elkartea desegiteko.

11. artikulua.- Batzar Orokorra biltzeko deialdiak idatziz egin behar dira; bilkuren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai-zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten denetik gutxienez bost egun pasatu beharko dira bilkura lehen deialdian egiteko. Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua ere adieraz daitezke. Dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordu erdiko tartea utzi beharko da.

Batzar orokorrak, ohikoak nahiz ezohikoak, lehenengo deialdian balio osoz eratuta geratuko dira botoa emateko eskubidea duten bazkideen herena bertaratzen bada; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten bazkideen kopurua edozein dela ere.

12. artikulua.- Batzar Orokorraren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuena baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Dena den, bertaratutakoen edo ordezkatutakoen gehiengo osoa beharko da (erdia + 1), honako erabaki hauek hartzeko:

- a) Elkartea desegitea.
- b) Estatutuak aldatzea.
- c) Ondasunak erabili edo besterentzea.
- d) Ordezkaritza-organoko kideei ordaintzea.

13. artikulua.- Bazkideek beste edozein bazkideri eman ahalko diote beraiek ordezkatzeko ahalmena batzar orokorretan. Ordezkaritza hori emateko baimena idatzirik egin beharko da, eta batzordeko idazkariak saioa hasi

aurretik eduki beharko du. Elkartearen egoitza dagoen herritik kanpo bizi diren bazkideek ordezkaritza beste norbaiten esku uzteko agiria postaz bidali dezakete.

ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIO-SAILAK

ZUZENDARITZA-BATZORDEA

14. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea da Batzar Orokorren xedapen eta zuzentarauei jarraikiz elkartearen interesak kudeatu eta ordezkatzeko dituen organoa. Bazkideek baino ezingo dute osatu ordezkaritza-organoa.

Zuzendaritza Batzordea osatuko dutenak honakoak izango dira:

Lehendakaria
Idazkaria
Diruzaina
Lehendakariordea
Batzordekideak, Gehienez: 3

15. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilera horietara bi aldiz jarraian, edo, tarteka lau aldiz agertzen ez bada, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen.

16. artikulua.- Batzar Orokorrek hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kargudunak. Kargu horiek LAU URTERAKO izendatuko dira Batzordeak berariaz baliogabetu ezean. Kargudun berbera behin eta berriro hautatu ahal izango da.

Kargu horiek partzialki berrituko dira, erdika, bi urtez behin, berriz ere hautatu daitezkeelarik. Lehenengo berritze partziala zozketaz egingo da.

17. artikulua.- Pertsona fisikoek zein pertsona juridikoen ordezkariak baldintza hauek bete beharko dituzte Zuzendaritza Batzordeko kideak izateko:

- a) Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legeetan ezarritako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.
- b) Estatutuetan aurreikusitako moduan izendatua izatea.
- c) Erakundeko bazkidea izatea.



18. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, lehendabizi, Batzorde Orokorrak izangaia hautatu behar du, eta, gero, izendatu horrek kargua onartu behar du.

Zuzendaritza Batzordeko kideen dieta eta gastuak ordaintzea erabaki dezake Batzar Orokorrak.

19. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek beren kargua utziko dute honelakorik gertatuz gero:

- a) Agintaldia bukatzen denean.
- b) Dimititzen dutenean.
- c) Bazkide izateari uzten diotenean, edo kargua betetzeko ezintasun-arrazoiak dituztenean.
- d) Estatutu hauetako 16. artikulua aplikatuz, Batzar Orokorrak kargua baliogabetzea erabakitzen duenean.
- e) Hiltzen direnean.

Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute lehenengo batzar orokorra egin arte. Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak.

Arrazoiak b), c), d) eta e) idatz-zatietan agertzen dena bada, berriz, hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du Zuzendaritza Batzordeak, eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Ezetsi egiten badu, behar diren kargu-izendapenak egingo ditu.

Organo honen osaeran egiten diren aldaketa guztien berri emango zaio Elkarteen Erregistroari.

20. artikulua.- Hona Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak:

- a) Elkarteen eguneroko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren jarraibideekin bat etorritik eta haren kontrolpean.
- b) Elkarteen aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.
- c) Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Orokorrari aurkeztea, hark onartu ditzen.
- d) Batzar Orokorraren bileretako gai-zerrendak egitea, eta ohiko nahiz ezohiko batzar orokorretarako deialdiak egitea erabakitzea.



- e) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horien inguruan hartu beharreko neurriak hartzea.
- f) Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta Estatutuetako hutsuneak betetzea, betiere elkarteen inguruan indarrean dauden legeekin bat etorriz.
- g) Batzar Orokorrak berariazko erabakien bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

21. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen bilkurak lehendakariak erabaki edo batzordekide batek eskatzen duen bakoitzean egingo dira. Bilkurako buru lehendakaria izango da, ez balego, lehendakariordea; eta horien faltan, batzordekide zaharrena.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak aldeko botoa eman behar du. Horretarako, gutxienez batzordekideen kopuruaren erdiak egon beharko du bilkuran. Berdinketarik egonez gero, lehendakariaren kalitateko botoa izango da erabakiko duena.

Idazkariak bilera-aktak egingo ditu eta akta horiek gero dagokion liburuan transkribatuko dira.

ZUZENDARITZA BATZORDEKO KIDEAK

Batzordeburua:

22. artikulua.- Elkarteko presidenteak bere gain hartuko du elkartearen legezko ordezkaritza, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak gauzatuko ditu. Era berean, aipaturiko bi organo horietako presidentea izango da.

23. artikulua.- Presidenteak honako ahalmen hauek izango ditu:

- a) Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Orokorraren bilera-deiak egin, bilerak bukatutzat eman, bileretan sortzen diren eztabaidak bideratu, eta boto-berdinketa gertatuz gero kalitate-botoarekin erabakitzea.
- b) Elkartearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea eta elkartearen zereginak bultzatu eta bideratzea.
- c) Baliotasunez erabakitako ordainketak egiteko agintzea.



- d) Sortzen diren premiazko arazoak konpontzea, eta egiten den lehenengo bilkuran Zuzendaritza Batzordeari horren berri ematea.
- e) Batzar Orokorrak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

PRESIDENTEORDETZA (EGONEZ GERO)

24. artikulua.- Presidenteordeak presidenteari lagunduko dio, eta presidenteak aldi batean bere kargua bete ezin badu, presidenteak ordezkatu du. Era berean, presidenteak berariaz eskuordetzen dizkion ahalmen guztiak izango ditu.

IDAZKARITZA

25. artikulua.- Idazkariari dagokio, zehazki, elkartean sartzeko eskabideak jaso eta izapidetzea, fitxategia eta Bazkideen Erregistro Liburua zaintzea, eta Akta Liburuaren zaintzaren eta idazketaren ardura izatea.

Era berean, elkarteen arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzeaz arduratuko da, erakundearen agiri ofizialak zainduz, elkartearen liburuen eta artxiboen edukia egiaztatuz eta Zuzendaritza Batzordeko izendapenen eta egoitza sozialaren aldaketen berri emateko egin beharreko jakinerazpenak eginez agintari eskudunari.

DIRUZAINNTZA

26. artikulua.- Egindako diru-sarrera eta ordainketen berri emango du diruzainak, eta diru-sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Horiek guztiak Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu behar dizkio, eta horrek Batzar Orokorrari, hark onartu ditzan.

BOKALAK (EGONEZ GERO)

27. artikulua.- Bokalek beren karguei datxezkien funtzioak izango dituzte, Zuzendaritza Batzordeko kideak diren aldetik (elkartearen zuzendaritza eta kudeaketa arrunta), baita batzordeak berak eskatzen dizkiena ere.



HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: ONARTUAK IZATEKO BALDINTZA ETA PROZEDURAK, ETA BAZKIDE-MOTAK

28. artikulua.- Elkartekide izan nahi eta baldintza hauek betetzen dituzten pertsona guztiak izan daitezke elkarteko bazkide:

- Adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua izatea, norberaren eskubideak erabiltzeko inolako lege-baldintzaren menpe ez egotea eta ebazpen judizial irmoaren bidez eskubideen erabilera mugatuta ez edukitzea. Eskumena duen organoak bere baitan hartutako erabaki baliodunaren kopia aurkeztu behar dute, eta bertan adieraziko dira bai elkartzeko borondatea, bai pertsona juridikoaren izenean arituko denaren izendapena.

29. artikulua.- Elkartean sartu nahi duenak idatziz aurkeztu beharko du bere eskabidea, bi bazkideren sinadurarekin eta presidenteari zuzenduta. Presidenteak eskaeraren berri emango dio Zuzendaritza Batzordeari, eta horrek erabakiko du eskabidea egin duena elkartean onartu ala ez. Erabakiaren aurkako gora jotzeko errekurtoa jar dakioke Batzar Orokorrari.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

30. artikulua.- Bazkidetutako pertsona guztiek eskubide hauek dituzte:

- 1) Elkarteei buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta jardunak inpugnatzea, inpugnatutako erabakiaren edukia ezagutu duten edo ezagutzeko aukera izan duten egunetik egutegiko berrogei eguneko epean.
- 2) Elkartearen gobernu- eta ordezkaritza-organoen osaerari, elkartearen kontu-egoerari eta elkartearen jardueri buruzko informazioa jasotzea.
- 3) Elkarteko beste bazkideen nortasuna, diru-sarreraren eta gastuen egoera, eta elkartearen ekintzen garapenaren



berri edozein unetan izatea, datu pertsonalak babesteko arautegian aurreikusitako moduan.

- 4) Batzar orokorretarako deiak jasotzea, batzar orokorretara joan eta hitz egin eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea.
- 5) Elkartearen Estatutu hauen arabera, elkarteko zuzendaritza-organoetan parte hartzea eta organo horietarako hautatzaile nahiz hautagai izatea.
- 6) Indarrean dauden legeetan zehaztutako bazkideen fitxategian agertzea, eta elkartearen ikurra, baldin badu behintzat, erabiltzea.
- 7) Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-organoei eskakizunak eta kexak aurkeztea.
- 8) Talde-ekintza sozialetan parte hartzea, eta bazkideentzako tresnak erabiltzea (elkartearen egoitza, liburutegiak, eta abar).
- 9) Bazkideari diziplinazko neurriak ezarri aurretik, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiei buruzko azalpenak jasotzea. Neurriak hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean soilik oinarritu daitezke.
- 10) Edozein unetan baja ematea. Hala ere, hartu bai baina bete gabe dituzten konpromisoak bete beharko dituzte.

31. artikulua- Hona bazkideen betebeharrak:

- a. Elkartearen helburuekin bat etortzea eta helburu horiek betetzen laguntzea.
- b. Kuotak, derramak eta Estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkion bestelako ekarpenak ordaintzea.
- c. Estatutuetatik eratorritako bestelako betebeharrak betetzea.
- d. Elkarteko zuzendaritza-organoek baliotasunez hartutako erabakiei men egin eta erabaki horiek betetzea.

BAZKIDE IZATEARI UZTEA

32. artikulua.- Bazkide izaera arrazoi hauengatik galduko da:

1. Hilez gero (edo, pertsona juridikoen kasuan, deseginez gero).
1. Bazkidea bere borondatez joanez gero.



2. Honelako egoeraren bat gertatzen bada: estatutu hauetatik ondorioztatutako betebeharrak modu larriz ez betetzea, behin eta berriz, eta nahita, edo gauza bera gertatzea Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak hartutako akordio baliodunei dagokienez.

ZIGOR-ARAUAK

33. artikulua.- Bazkideek behin eta berriz hausten badituzte Estatutuak edo Batzar Orokorrak nahiz Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak, Zuzendaritza Batzordeak bazkide horiek zigortu ahal izango ditu.

15 egunetik hilabetera eskubideak kentzetik hasi eta elkartetik betiko kanporatzera arteko zigorra ezar daiteke, ondorengo artikuluek adierazitako moduan.

Horretarako, zigorgarriak izan daitezkeen jokabideak aztertzeko ikerketa egin dadila erabaki dezake lehendakariak. Ikerketaren instruktorea idazkaria izango da, eta berak proposatuko dizkio Zuzendaritza Batzordeari hartu beharreko neurriak.

Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordeak izango du, idazkariak ez du horretan parte-hartzerik izango (instruktorea delako), eta zigorra ezarri aurretik interesdunari entzunaldia eskainiko zaio. Zigortzeko erabakia arrazoitu egin beharko da beti, eta erabaki horren aurkako errekurtsua jarri ahalko zaio Batzar Orokorrari.

34. artikulua.- Bazkideren batek elkartetik kanporatua izateko moduko ustezko egintzaren bat egiten badu, hau da, Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausten baditu, gertaeren berri izatearren, lehendakariak idazkariari agindu diezaioke aurretiazko eginbide zehatz batzuk egin ditzala, behar den informazioa jasotzeko. Eginbide horiek ikusita, lehendakariak jarduerak artxibatzeko agintzea edo elkartetik kanporatzeko zigor-espedienteari hasiera ematea erabaki dezake.

35. artikulua.- Elkartetik kanporatzeko zigor-espedientea hasten bada, idazkariak, gertakariak egiaztatu ondoren,



idatzi bat bidaliko dio interesdunari, leporatzen zaizkion karguen berri emateko. Kargu horiei erantzuteko, interesdunak bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu hamabost eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bilkurako gaitzerrendan sartuko da kasua, eta batzordeak hartuko du erabakia. Erabakian ez du botorik izango espedienteko instruktorea izan den idazkariak.

Elkartetik kanporatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio eta, era berean, hurrengo ezohiko batzar orokorrean errekurtsioa aurkez dezakeela azalduko zaio. Hiru hilabeteren barruan batzarrik egiten ez bada, batzar bat egin beharko da horretarako bakarrik. Bitartean, Zuzendaritza Batzordeak inputatuar bazkide-eskubideak etetea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza Batzordeko kide bada, kargu hori utzarazi beharko dio.

Batzar Orokorrari kanporatzeko espedientea aurkeztuz gero, idazkariak espedientearen laburpena egingo du, Zuzendaritza Batzordeak interesdunak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza Batzar Orokorrari eman ahal izateko, azken horrek dagokion erabakia har dezan.

36. artikulua.- Kanporatzeko erabakia arrazoitu egin behar da beti, eta erabaki hori interesdunari jakinarazi behar zaio. Interesdunak, eskubideaz baliatuz, auzitegietara jo ahal izango du bere ustez erabakia legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.

37. artikulua.- Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan —berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako— bete gabe dituen betebeharrak bete ditzala eskatuko zaio.

LAUGARREN KAPITULUA

SOZIETATE ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAUAK

38. artikulua.- Elkartearen SOZIETATE ONDAREA 0 eurokoa da.

39. artikulua.- Elkartek, bere jarduerak aurrera eramateko, diru-baliabide hauek aurreikusten ditu:

a) Ondare-ekarpenak.

- b) Erabakitzen diren aldizkako kuotak.
- c) Elkartearen ondasun eta eskubideetatik datozen emaitzak, eta legez jasotzen dituen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
- d) Zuzendaritza Batzordeak Estatutuen helburuak lortzeko egin beharrekotzat jotzen dituen jarduera zilegietatik datozen diru-sarrerak.

ELKARTEAREN EKITALDIA ETA EKITALDI EKONOMIKOA urte betekoa izango da, eta urte bakoitzeko ABENDUAREN 31n itxiko da.

Jarduera ekonomikoak gauzatuz (zerbitzuak ematea barne) elkarteak lortzen dituen irabaziak bere helburuak betetzeko baino ez dira erabili behar. Inola ere ezingo dira bazkideen artean banatu, ez eta haien ezkontideen edota haiekin antzeko afektibitate-harremanean bizi diren pertsonen artean eta haien senideen artean ere. Ezingo zaizkie, halaber, irabazteko asmoa duten pertsona juridiko edo fisikoei doan laga.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

40. artikulua.- Estatutuak aldatzea propio horretarako deitutako bazkideen ezohiko batzar orokorrean erabaki behar da. Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkidek osatutako batzorde-txostengile bat izendatuko du, aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo hori Zuzendaritza Batzordeak ezarritako jarraibideen arabera egingo da, eta batzorde berak jarriko du egitasmoa amaitzeko epea.

41. artikulua.- Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, lehendakariak Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bilkurako gai-zerrendan sartuko du. Zuzendaritza Batzordeak egitasmoa onartuko du edo, bestela, lantaldeari itzuliko dio, berriz aztertu dezan.



Onartua izanez gero, Zuzendaritza Batzordeak egiten den hurrengo batzorde orokor ezohikoaren gai-zerrendan sartzea erabakiko da.

42. artikulua.- Batzarrerako deiarekin batera, Estatutuetako aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak Idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa horiek Batzar Orokorrari helaraziko zaio, batzarra egin baino zortzi egun lehenago jaso badira Idazkaritzan.

Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke, idatziz, eta aukerako beste testu bat izan beharko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Orokorrak Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatzen denetik aurrera baino ez du eragina izango hirugarrenengan.

42. Atala.- Batzarrerako deialdiarekin batera Estatutuak aldatzeko testua bidaliko da, bazkideek egoki deritzen zuzenketak Idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzentzeko proposamen horiek Batzar Orokorrean aztertuko dira, beti ere Idazkaritzaren esku badaude bilkura egin baino zortzi egun lehenago.

Zuzenketak banaka nahiz taldeka aurkeztu ahal izango dira, idatziz aurkeztuko dira eta beste testu alternatibo bat jasoko dute.

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZERTARAKOA

43. artikulua.- Elkartea honelako kasuetan ezabatuko da:

1. Bazkideek hala nahi dutelako. Nahi hori horretarako bildutako ezohiko batzar orokorrean azaldu beharko da.
2. Estatutuetan finkatutako epea edo baldintza bete delako.
3. Beste elkarte batek xurgatu duelako edo beste elkarte batzuekin bat egin duelako.
4. Legez ezarritako gutxieneko bazkide-kopururik ez duelako.
5. Epai irmo batek elkartea desegitea agintzen duelako.
6. Elkartearen helburuak betetzea ezinezkoa delako.



44. artikulua.- Elkartea deseginez gero, horixe erabakitzen duen batzar orokor ez-ohikoak Batzorde Likidatzaile bat izendatuko du, eta hark hartuko ditu bere gain dauden funtsak.

Bazkideekiko eta besteekiko elkarte-betebeharrak bete ondoren, geratzen den elkarte-ondarea, geratzen bada behintzat, irabazi-asmorik gabeko erakunde bati edo irabazi-asmorik gabeko ekimenen bati eman beharko zaio.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak barne-araudia onartu ahal izango du, baina horrek inolaz ere ez ditu Estatutuetako aginduak aldatuko.

